

ZARAUZKO UDALEAN, KARTZELA ZIGORRAREN ORDEZ, GIZARTEAREN MESEDERAKO LANAK EGIN AHAL IZATEKO BARNE ARAUDIA

Lehena. Xedea

Araudi honen xedea da Zarautzen bizi diren pertsonak gizartearen mesederako lan egiteko aukera izatea, epaileak ezarritako kartzela zigorraren ordeztu.

Bigarrena. Betebeharrak.

Eskatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Eskaera egiten duen momentuan Zarauzko Udalean gutxienez 3 hilabetean egotea errolatuta.
- Zarauzko Udalak edo elkarteek uste badute zigorra bete behar duen pertsonaren profila ez dela egokia, gizartearen mesederako lana egiteko eskaera uka diezaioke.

Hirugarrena. Eskaintzen diren lanak.

Zarauzko hainbat elkarte prest daude gizartearen mesederako lan eginaz zigorrak bete behar dituzten pertsonentzat jarduera desberdinak eskaintzeko.

Elkarte hauek eskainiko dituzten lanak momentuan dituzten beharren arabera definituko dira.

Udaleko Kultura departamentuak, Euskara zerbitzuak, Udaltzaingoak eta Gazteria departamentuak ere hainbat lan eskainiko dituzte, epaileak ezarritako zigorrak gizartearen mesederako lanean bete ahal izan daitezen.

Era berean, Udaleko gainerako departamentuek eta erakunde autonomoek lanak eskaini ahal izango dituzte, beren ahalbideen neurrian.

Zerrenda hau zabalik egongo da parte hartu nahi duten elkarteentzat eta Udaleko beste departamentuentzat.

Momenturen batean Udalak eskaintza egokirik ez badu, gizartearen mesederako lan egiteko pertsona bat ez hartzea erabaki dezake, harik eta lan egoki bat eduki arte.

Laugarrena. Lanaldia.

Udalak, elkarteen bidez edo Udaleko beste departamentuen bidez, 2 orduko lanak eskainiko ditu. Laneko ordutegia eta epeak ezartzeko garaian, kontuan edukiko dira zigortuak dituen karga familiarak, pertsonalak, eta bere lan egoera.

Bosgarrena.

Zigortuak egingo duen lana ez da ordainduko.

Seigarrena.

Gizartearentzat lan egitera zigortuak izan direnen Gizarte Segurantzaren babesari dagokionez, uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuak, 22. artikuluan ezarrita dauka Gizarte Segurantzaren babes-ekintzaren pean egongo direla, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondorioetarako bakar-bakarrik.

Langabeziako edo balio-ezintasunen bateko prestazioa jasotzen badu zigortuak, zigorra betetzen ari dela jakinarazi behar dio INEMeri edo dagokion Gizarte-Segurantzako sailari; Gizarte Segurantzaren alta emanez gero, eta erregimen berezia izan arren, laguntza galtzeko arriskua baitago akatsa zuzendu arte.

Zazpigarrena. Prozedura.

Gizartearen mesederako lanak egin behar dituen pertsonak eskaera-orria bete beharko du. Lanak eskaintzeko garaian, eskaera-orriaren sarrera-data hartuko da kontuan:

- Elkarrizketa egingo zaio Gizarte Zerbitzuetan.
- Pertsonaren profilaren eta libre dauden plazen arabera, lan egutegia eta ordutegia jarriko zaizkio.
- Bere lanaren jarraipena egiteko arduraduna jarriko zaio eta arduradun honek asistentzia orria bete beharko du.
- Lan plana sinatuko dute zigorra bete behar duen pertsonak, Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta zigortuari jarraipena egin behar dion pertsonak.

Eskaera onartzen ez bada, eskatzaileari erantzuna idatziz jakinaraziko zaio.

Zortzigarrena. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- NAN, atzeritarraren identifikazio-zenbakia edo pasaporteak.
- Errolda agiria

- Kartzela zigorra ezartzen duen sententziaren kopia bat (zein deliturengatik zigortua izan den azaldu beharko du)

Bederatzigarrena.

Epaileak lan plana onartzen duenean, onarpenaren agiria aurkeztu eta lanean hasi ahalko da.

Hamargarrena.

Zigortuak bere jarraipena egingo duen pertsona arduradunaren aginduak bete beharko ditu.

Hamaikagarrena.

Zigortuaren jarraipena egingo duen pertsonak ondorengo gertakarien berri eman beharko die Gizarte Zerbitzuei:

- Arrazoirik gabe lanera ez etortzea.
- Bere errendimendua eskatzen zaion gutxienekoa baino txikiagoa izatea
- Arduradunak jarritako betebeharrak ez betetzea.
- Zigortua gaizki portatzen delako arduradunak pertsona hori elkartean edo departamentuan mantentzeari uko egiten badio.
- Zigortua arrazoi justifikatu batengatik lanera joaten ez bada, galdu duen eguna ez zaio lan eguna bezala kontatuko.

Hamabigarrena.

Zigortuak gizartearen mesederako lanak bukatzen dituenean, Udalak ziurtagiri bat emango dio honako informazioa azalduz:

- Zenbat egunetan egin duen lan
- Non egin duen lan
- Zein ordutegitan.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko barne-araudia, hasierako izaeraz, 2010eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 2010eko urriaren 28a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko barne-araudia, behin betiko izaeraz, 2011ko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 2011ko urtarrilaren 27a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, barne-araudiaren testu osoa 2011ko otsailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (26 zk.) argitaratu zela, eta 2011ko otsailaren 28an sartu dela indarrean.

Zarautz, 2011ko otsailaren 28a
Idazkaria